



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2026ko otsailaren 27a

20. ZK.

A U R K I B I D E A

E S A I L A:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- 11-26/MOC-00035. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita erregai fosilei buruzko tratatu baterako ekimena babestu dezan. Mikel Asiain Torres jaunak aurkeztu du (3. or.).
- 11-25/MOC-00157. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita txosten bat egin dezan haurrengan eta nerabeengan, zuzenean nahiz zeharka, inpaktua duten politikak sostengatzen dituzten aurrekontuko zenbatekoei buruz. Osoko Bilkurak onetsi du (4. or.).
- 11-26/MOC-00004. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita klimaterioan eta menopausian laguntza integrala emateko foru-plan bat taxutu dezan, gehienez ere hamabi hilabeteko epean. Osoko Bilkurak onetsi du (5. or.).
- 11-26/MOC-00025. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita berehala has ditzan Iruña-Noaingo aireportuaren kudeaketarako Nafarroa-Estatua aldebiko organismo bat sortzeko izapideak. Osoko Bilkurak onetsi du (5. or.).
- 11-26/MOC-00027. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Kirolaren eta Jarduera Fisikoaren Institutua premiatzen baita bere webgunean lehiaketan ikusizko egutegi bat para dezan, erabiltzaile orok kontsultatzeko modukoa eta zer lehiaketa egonen diren eta non eginen diren jakitea ahalbidetuko duena. Osoko Bilkurak onetsi du (6. or.).
- 11-26/MOC-00030. Erabakia, zeinaren bidez premiatzen baita migratzaileen ezohiko erregularizazio-prozesua babestu dadin. Osoko Bilkurak onetsi du (6. or.).
- 11-26/MOC-00021. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita osorik bete dezan Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluaren AR 144/2025 Akordioa. Osoko Bilkurak ezetsi du (7. or.).
- 11-26/MOC-00032. Mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernua eta Nafarroako Gobernua premiatzen baitira errefusatu dezaten Espainian 500.000 etorkin ilegal ohiz kanpo erregularizatzeko aldera Ministroen Kontseiluak bultzatutako prozesua. Osoko Bilkurak ezetsi du (7. or.).
- 11-26/MOC-00033. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita bi hilabeteko epean aurkez ditzan industria-funts publiko-pribatuaren oinarriak. Osoko Bilkurak ezetsi du (8. or.).

—11-25/MOC-00170. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita osasun mentaleko zerbitzuak O-NOZetik entitate pribatuetara ateratzean kalitatezko zerbitzua berma dezan, lanpostuak mantentzen ditzan eta lan baldintza duinak ziurta ditzan. Osasun Batzordeak onetsi du (8. or.).

—11-26/DEC-00011. Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Gaixotasun Arraroen Nazioarteko Egunaren ospakizunarekin. Eledunen Batzarrak onetsi du (9. or.).

F SAILA:

Galderak:

—11-26/POR-00051. Galdera, Vida Nueva egoitzaren gaineko ikuskaritza-neurriak eta arreta soziosanitarioaren kontrolari buruzkoa. Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enplegu Batzordean izapidetzea (10. or.).

—11-26/POR-00055. Galdera, Nafarroako Gobernuaren jarduketari buruzkoa, fiskalizaziorik egin ez izanari buruzko txostena ikusita. María Isabel García Malo andreak egin du (10. or.).

—11-26/PES-00057. Galdera, hiriarteko zerbitzuak abiarazi izanari eta taxiak beren lurralde-eremutik kanpo egindako zerbitzuei buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (11. or.).

—11-26/PES-00058. Galdera, 2025-2028ko aldirako Enplegu Planaren baitako berdintasun-planak bete-tezari buruzkoa. Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak egin du (12. or.).

—11-26/PES-00059. Galdera, Parquenasaren kontratuak direla-eta esku-hartu ez izanari buruzko espedientea ez argitaratzeko arrazoiei buruzkoa. Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak egin du (12. or.).

—11-26/PES-00060. Galdera, Nafarroan 1/2024 Legea garatzeari buruzkoa. Miren Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak egin du (13. or.).

—11-26/PES-00061. Galdera, txerri-izurri afrikarra dela-eta hartutako neurriak areagotzeari buruzkoa. Félix Zapatero Soria jaunak egin du (14. or.).

—11-26/PES-00062. Galdera, 2024ko kirol-urtekariari buruzkoa. Francisco Javier Trigo Oubiña jaunak egin du (15. or.).

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

11-26/MOC-00035. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia- tzen baita erregai fosilei buruzko tratatu baterako ekimena babestu dezan

MIKEL ASIAIN TORRES JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko otsailaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Asiain Torres jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita erregai fosilei buruzko tratatu baterako ekimena babestu dezan.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2026ko otsailaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko foru-parlamentari Mikel Asiain Torres jaunak, Parlamentuko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Legebiltzarraren Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko: Mozioaren jarraipena Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako Batzordeak egingen du.

Zioen azalpena

Erregai fosilei buruzko tratatuaren ekimena ekimen diplomatiko bat da, zenbait herrialdek gidatua eta gizarte zibilaren kanpaina global batek babestua. Ekimenak tresna juridiko lotesle berri bat eratzea bilatzen du, petrolioaren, gasaren eta ikatzaren hedapenari amaiera emateko eta trantsizio energetiko justu eta ekitatiboa bultzatzeko, zientziak gomendatzen duenaren arabera. Tratatuaren proposamenak hiru zutabe ditu:

- Ez ugaritzea: erregai fosilen proiektu berrien hedapena geldiaraztea mundu osoan.

- Ezabatze ekitatiboa: dauden proiektuak eta azpiegiturak ezabatzea modu progresibo eta ekitatiboan, berotze globala 1,5 °C-ra mugatzeko helburuarekin bat.

- Bidezko trantsizioa: langileentzako, erkidegoentzako eta erregai fosilen mende dauden ekonomientzako bidezko trantsizio energetikoa bultzatzea, inor atzean utzi gabe.

Gaur egun, jada 18 herrialdek babesten dute formalki erregai fosilei buruzko tratatu baterako deia, eta xehetasunak definituko dituzten negoziatioetan parte hartzeko konpromisoa hartu dute. Halaber, tratatuaren ekimenaren babesa gobernu nazionalaz askoz ere harago doa; izan ere, 140 hiri eta gobernu azpinazionalak baino gehiagok (horien artean, Bartzelonak eta Bartzelonako Diputazioak), Osasunaren Mundu Erakundeak, Europako Parlamentuak, gizarte zibileko 4.000 organizaziok baino gehiagok, 3.000 zientzialarik baino gehiagok, 37 nazio indigenak eta milioi bat pertsonak baino gehiagok ere babesten dute (horien artean, 101 nobel saridunek eta 850 politikari hautetsik).

Erregai fosilak dira emergentzia klimatikoaren eragile nagusiak, berotegi-efektuko gasen emisioen ia % 70 sortzen dute, bai eta CO₂ emisioen ia % 90 ere. Erregai fosilek, gainera, garapen jasangarriko 17 helburuak betetzea eragozten dute, inpaktu nabarmena baitaukate pertsonen osasunean eta naturan, eta horien erauzketa historikoki lotuta egon da gatazka armatuekin eta giza eskubideen urraketa larriekin.

Halere, dauzkan inpaktu negatiboak gorabehera, erregai fosilen eskariak gora egiten jarraitzen du mundu osoan, eta gobernuen aurreikuspenak betetzen badira, erregai fosilen erauzketa bikoiztu

eginen da 2030a baino lehen. Halaber, erregai fosilen finantzaketak gora egiten jarraitzen du, baita subsidioek ere, 2030ean 8,2 bilioi dolarra iritsiko direnak aurreikuspenen arabera.

Parisko Akordioa ekintza klimatikorako esparru integral bat da, helburu gisa ezartzen duena ekiditea planetaren batezbesteko tenperatura globala 2 °C baino gehiago igotzea eta ahaleginak egitea igoera hori ez dadin 1,5 °C baino handiagoa industriaurreko mailekiko (2.1.a artikulua). Hortaz, Parisko Akordioaren arintze-betebeharren alderdi nagusia emisioak murriztearen garrantzia da. Halere, ez du murrizketarik ezartzen petrolio, gasa eta ikatza ekoizteko eta erabiltzeko, eta ez du tresnarik jasotzen energia berriztagarrietarako bidezko trantsizioa negoziatzeko.

Klima Aldaketari buruzko Adituen Gobernuarteko Taldeak jada 2018an adierazi zuen berotegi-efektuko gasen zero emisio garbien helburua lortu beharko genukeela mende honen erdialdean, berotze globala 1,5 gradu zentigradora mugatzeko aukera izan genezan.

Hori guztia dela-eta, honako erabaki-proposamen hau aurkezten dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak berretsi egiten du etengabe konprometiturik dagoela Parisko Akordio Klimatikoan jasotzen diren helburuekin eta Klima

Aldaketari buruzko Adituen Gobernuarteko Taldeak berotegi-efektuko gasak murrizteko ezartzen dituen helburuekin, eta Parisko Akordio Klimatikoaren arabera berotegi-efektuko gasen murrizketa proportzionala betetzeko konpromisoa hartzen du.

2. Nafarroako Parlamentuak formalki babesten du erregai fosilei buruzko tratatu baten aldeko deia —ez ugaritzea eta ezabatze progresiboa—.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du erregai fosilei buruzko tratatu baten ekimena babestu dezan.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du neurriak susta ditzan ekimen hori herritarren artean ezagutarazteko eta eta inplikaturako beste erakunde eta gizarte-eragileekiko lankidetzara eta eztabaida sustatzeko.

5. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du erregai fosilei buruzko tratatu baten ekimena babestu dezan.

6. Nafarroako Parlamentuak berresten du langileentzako, erkidegoentzako eta erregai fosilen mende dauden ekonomientzako trantsizio energetiko bidezko eta ekitatibo baten alde dagoela, inor atzean utzi gabe.

Iruñean, 2026ko otsailaren 19an

Foru-parlamentaria: Mikel Asiain Torres

11-25/MOC-00157. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita txosten bat egin dezan haurren eta nerabeengan, zuzenean nahiz zeharka, inpaktua duten politikak sostengatzen dituzten aurrekontuko zenbatekoei buruz

OSOKO BILKURAK ONETSI DU

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak 2026ko otsailaren 19an onetsitako erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita txosten bat egin dezan haurren eta nerabeengan, zuzenean nahiz zeharka, inpaktua duten politikak sostengatzen dituzten aurrekontuko zenbatekoei buruz. Hona testua:

“Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroako haur eta nerabeengan zuzenean eta zeharka eragina duten politiken oinarri diren aurrekontu orokorretan esleitutako zenbateko ekonomikoei buruzko txosten bat egin dezan”.

Iruñean, 2026ko otsailaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-26/MOC-00004. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia- tzen baita klimaterioan eta menopausian laguntza integrala emateko foru-plan bat taxutu dezan, gehienez ere hamabi hilabeteko epean

OSOKO BILKURAK ONETSI DU

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak 2026ko otsailaren 19an onetsitako erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita klimaterioan eta menopausian laguntza integrala emateko foru-plan bat taxutu dezan, gehienez ere hamabi hilabeteko epean. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premia-tzen du gehienez ere hamabi hilabeteko epean taxutu dezan klimaterioari eta menopausiari arreta integrala emateko foru-plan bat, 1/2023 Lege

Organikoarekin eta 17/2019 Foru Legearekin bat datorrena, genero-ikuspegia, giza eskubideen ikuspegia eta ikuspegi interseksionala dituen, eta departamentu-arte-ko izaera izan den duena, eta inplikatuak dituen, gutxienez, osasunean, berdintasunean, hezkuntzan, gizarte-zerbitzuetan, enpleguan eta toki-administrazioan eskumena duten departamentuak, berariaz barne hartuta lan-arriskuen prebentzioa eta emakumeen lan-baldintzak egokitzeko klimaterioan eta menopausian, sintomatologiak hala eskatzen duenean”.

Iruñean, 2026ko otsailaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-26/MOC-00025. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia- tzen baita berehala has ditzan Iruña-Noaingo aireportuaren kudeaketa- rako Nafarroa-Estatua aldebiko organismo bat sortzeko izapideak

OSOKO BILKURAK ONETSI DU

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan xedatua betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak 2026ko otsailaren 19an onetsitako erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita berehala has ditzan Iruña-Noaingo aireportuaren kudeaketarako Nafarroa-Estatua aldebiko organismo bat sortzeko izapideak. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premia-tzen du berehala has ditzan Iruña-Noaingo aireportuaren kudeaketarako Nafarroa-Estatua aldebiko organismo bat sortzeko izapideak”.

Iruñean, 2026ko otsailaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-26/MOC-00027. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Kirolaren eta Jarduera Fisikoaren Institutua premiatzen baita bere webgunean lehiaketen ikusizko egutegi bat para dezan, erabiltzaile orok kontsultatzeko modukoa eta zer lehiaketa egonen diren eta non egingen diren jakitea ahalbidetuko duena

OSOKO BILKURAK ONETSI DU

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak 2026ko otsailaren 19an onetsitako erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Kirolaren eta Jarduera Fisikoaren Institutua premiatzen baita bere webgunean lehiaketen ikusizko egutegi bat para dezan, erabiltzaile orok kontsultatzeko modukoa eta zer lehiaketa egonen diren eta non egingen diren jakitea ahalbidetuko duena. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Kirolaren eta Jarduera Fisikoaren Institutua premiatzen du:

1. Bere webgunean lehiaketen ikusizko egutegi bat para dezan, erabiltzaile orok kontsultatzeko modukoa eta zer lehiaketa egonen diren eta non egingen diren jakitea ahalbidetuko duena.

2. Garraioari buruzko informazio-plataforma eguneratu dezan, eskuragarriagoa izan dadin federazio, klub, kirolari eta laguntzaileentzat, kirolarien joan-etorrietarako ezarritako irizpideak betetzea erraztu ahal izateko.

3. Plataforma berri horren publizitatea egin dezan Nafarroako federazio, ikastetxe eta kirol-klub guztien artean”.

Iruñean, 2026ko otsailaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-26/MOC-00030. Erabakia, zeinaren bidez premiatzen baita migratzaileen ezohiko erregularizazio-prozesua babestu dadin

OSOKO BILKURAK ONETSI DU

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan xedatua betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak 2026ko otsailaren 19an onetsitako erabakia, zeinaren bidez premiatzen baita migratzaileen ezohiko erregularizazio-prozesua babestu dadin. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak:

1. Espainiako Gobernuak bultzatutako ezohiko erregularizazio-prozesua babesten du, uste baitu prozesu hori ezohiko neurri legal eta bermatzailea dela, segurtasun juridikoa ematen duena, ezkutuko ekonomiari aurre egiten diona eta gizarteratzen eta laneratzen laguntzen duena.

2. Nafarroako Gobernua eta Nafarroako Udalerrien eta Kontzejuen Federazioa premiatzen ditu aktiboki kolabora dezaten erregularizazio-prozesua foru-lurralde osoan argi, zorrotz eta erraz hedatzeko, bai eta alarma soziala edo estigmatizazioa sor dezaketen albiste faltsuei eta desinformazioari aurre egiteko ere.

3. Nafarroako Gobernua premiatzen du indartu ditzan migratzaileei zuzendutako gizarteratze-politikak, Foru Komunitatean eskubideen eta bete-beharren berdintasuna bermatuz eta bizikidetzeta eta gizarte-kohesioa sustatuz.

4. Arrazakeriaren aurkako gizarte zibil antolatuaren eta erakunde sozialen ezinbesteko lana balioesten du, hainbat mobilizazio eta ekimenen bidez, esaterako "Erregularizazioa Orain" legegintzako herri-ekimenaren bidez, erregularizazio hori aktibatu ahal izan dadin lagundu baitute.

5. Prozesu honetan inplikaturako erakunde guztiak (estatukoak, foralak nahiz tokikoak) premiatzen ditu eskura dituzten baliabide guztiak abian jartzeko eta, halakorik ezean, indartzeko, erregularizazio-prozedura arintzen laguntzeko.

6. Mozio hau onetsi dela jakinaraziko dio Inklusio, Gizarte Segurantzako eta Migrazioko Ministerioari”.

Iruñean, 2026ko otsailaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-26/MOC-00021. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita osorik bete dezan Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluaren AR 144/2025 Akordioa

OSOKO BILKURAK EZETSI DU

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2026ko otsailaren 19an egindako bilkuran, ezetsi egin du María Isabel García Malo andreak aurkeztutako mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita osorik bete dezan Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluaren AR 144/2025 Akordioa. Mozioa 2026ko otsailaren 13ko 15. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2026ko otsailaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-26/MOC-00032. Mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernua eta Nafarroako Gobernua premiatzen baitira errefusatu dezaten Espainian 500.000 etorkin ilegal ohiz kanpo erregularizatze aldera Ministroen Kontseiluak bultzatutako prozesua

OSOKO BILKURAK EZETSI DU

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2026ko otsailaren 19an egindako bilkuran, ezetsi egin du Emilio Jiménez Román jaunak aurkeztutako mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernua eta Nafarroako Gobernua premiatzen baitira errefusatu dezaten Espainian 500.000 etorkin ilegal ohiz kanpo erregularizatze aldera Ministroen Kontseiluak bultzatutako prozesua. Mozioa 2026ko otsailaren 17ko 16. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2026ko otsailaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-26/MOC-00033. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia- tzen baita bi hilabeteko epean aurkez ditzan industria-funts publiko- pribatuaren oinarriak

OSOKO BILKURAK EZETSI DU

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2026ko otsailaren 19an egindako bilkuran, ezetsi egin du Ana María Elizalde Urmeneta andreak aurkeztutako mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita bi hilabeteko epean aurkez ditzan industria-funts publiko-pribatuaren oinarriak. Mozioa 2026ko otsailaren 17ko 16. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2026ko otsailaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-25/MOC-00170. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia- tzen baita osasun mentaleko zerbitzuak O-NOZetik entitate pribatuetara ateratzean kalitatezko zerbitzua berma dezan, lanpostuak mantentzen eta lan baldintza duinak ziurta ditzan

OSASUN BATZORDEAK ONETSI DU

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin Nafarroako Parlamentuko Osasun Batzordeak 2026ko otsailaren 25ean onetsitako erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita osasun mentaleko zerbitzuak O-NOZetik entitate pribatuetara ateratzean kalitatezko zerbitzua berma dezan, lanpostuak mantentzen eta lan baldintza duinak ziurta ditzan. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premia-tzen du:

1. Berma dezan, zerbitzua publiko egiten ez den bitartean, azpikontratutako zerbitzuaren antolaketan kontuan hartuak direla osasun mentaleko pazienteen berezitasunak, haien beharrian errealetara egokituz giza baliabideak eta baliabide materialak.

2. Osasun mentaleko arreta ematera bideratutako baliabide publikoak erabil daitezela kalitateko zerbitzu bat bermatzeko, lanpostuei eusteko eta lan-baldintza duinak bermatzeko, zerbitzua publiko egiten ez den bitartean”.

Iruñean, 2026ko otsailaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-26/DEC-00011. Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Gaixotasun Arraroen Nazioarteko Egunaren ospakizunarekin

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSI DU

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2026ko otsailaren 23an egindako bilkuran, honako adierazpen hau onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak bat egiten du Gaixotasun Arraroen Nazioarteko Egunaren ospakizunarekin.

2. Nafarroako Parlamentuak uste du funtsezkoa dela ikerketaren aldeko apustua egitea eta jada abian diren programa espezifikoei jarraipena ematea.

3. Nafarroako Parlamentuak arreta integralarekin duen konpromisoa adierazten du, osasun-laguntza humanizatuta eta zerbitzuetarako eta zainketa aringarrietarako sarbide ekitatiboa bermatuta.

4. Nafarroako Parlamentuak premiatzen du gizarte-zerbitzuetarako sarbidea berma dadin eta ezgaitasunaren balorazioa hobetu dadin”.

Iruñean, 2026ko otsailaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

F saila:
GALDERAK

11-26/POR-00051. Galdera, Vida Nueva egoitzaren gaineko ikuskaritzaneurriari eta arreta soziosanitarioaren kontrolari buruzkoa

ESKUBIDE SOZIALETAKO, EKONOMIA SOZIALEKO ETA ENPLEGUKO BATZORDEAN IZAPIDETZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko otsailaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Xedatzea Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Batzordean izapidetu dadin Domingo González Martínez jaunak egindako galdera, Vida Nueva egoitzaren gaineko ikuskaritzaneurriari eta arreta soziosanitarioaren kontrolari

buruzkoa. Galdera 2026ko otsailaren 10eko 12. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2026ko otsailaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-26/PES-00055. Galdera, Nafarroako Gobernuaren jarduketei buruzkoa, fiskalizaziorik egin ez izanari buruzko txostena ikusita

MARÍA ISABEL GARCÍA MALO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko otsailaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Isabel García Malo andreak egindako galdera, Nafarroako Gobernuaren jarduketei buruzkoa, fiskalizaziorik egin ez izanari buruzko txostena ikusita.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2026ko otsailaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

den Maribel García Malo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

Otsailaren 13an, Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilariak parlamentuan informatu zuen 2023ko dirulaguntza likidatu egin zela Nafarroako Kirolaren eta Jarduera Fisikoaren Institutuaren 2024ko abenduaren 31ko ebazpen baten bidez eta ebazpen hori ez zenez fiskalizatu txosten bat egin zela fiskalizazio-txostenik ez egiteagatik.

Hori dela-eta, Nafarroako Gobernuak zer egin du ikertzeko zergatik jardun den nahitaezko prozedura bete gabe? Izan ere, ez da egin irregulartasunak edo legezkontrakotasunak prebenitzeko eta, hortaz, erantzukizunak garbitzeko funtsezkoa den kontrola.

Iruñean, 2026ko otsailaren 14an

Foru-parlamentaria: Maribel García Malo

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioaren eledun

11-26/PES-00057. Galdera, hiriarteko zerbitzuak abiarazi izanari eta taxiak beren lurralde-eremutik kanpo egindako zerbitzuei buruzkoa

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko otsailaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galdera, hiriarteko zerbitzuak abiarazi izanari eta taxiak beren lurralde-eremutik kanpo egindako zerbitzuei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintukoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2026ko otsailaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamarique jaunak Lurralde Kohesioko Departamentuari egindako honako galdera hauek aurkeztu dizkio Mahaiari, idatziz erantzun dakizkion:

2026ko urtarriletik hona behin eta berriro ari da gertatzen lizentziadun taxiak kasuko lurralde-eremutik kanpo bidaiarien garraio-zerbitzuak modu antolatuan egiten dituztela, Nafarroako Foru Komunitatean bidaiariak hartu eta garraiatzen dituztela. Gertakari horiek sarritan jakinarazi edo salatu dira, telefono bidez, Foruzaingoan.

Taxi horiek honako ibilbide hau egin ohi dute behin eta berriro, ongi identifikatu daitekeenez:

– Zarakaztelun eta Caparrosen bidaiariak hartu.

– Bidaiari horiek Tafallako Mutua Universal-eraman eta hara gutxi gorabehera 09:00etan heldu.

– Ondoren, bidaiariak Tafallako Mutua Universal-ean hartu gutxi gorabehera 10:30ean eta itzulerako zerbitzua egin.

Ibilbide hori astelehenetik ostiralera egin ohi dute zenbait ibilgailuk; horrek agerian utziko luke jarduera sistematiko eta antolatua egiten dela

kasuko lizentzien lurralde-eremutik kanpo. Honako hauek dira kasuko lurralde-eremutik kanpoko jarduketetan inplikaturako ibilgailuak:

– 8935 KWV matrikuladun ibilgailua (taxi-lizentzia Errioxako Rincón de Sotoko Udalak emana omen).

– 3034 MTR matrikuladun ibilgailua (taxi-lizentzia Errioxako Cervera del Río Alhamako Udalak emana omen).

– 0638 LDC (lizentzia hori ere Errioxan emanda).

– 9238 KZZ (lizentzia Corellako Udalak emanda).

Jokamolde hori, zeinak kalte handia egiten baitie Nafarroan lizentzia duten taxi-gidari profesionalei, errepikakorra, antolatua eta sektorean ezaguna eta sarritan salatua da.

Horrenbestez, honako galdera hauek aurkeztu dira, idatziz erantzun dakien:

1. Garraioen Zuzendaritza Nagusiak jakin al du lizentziadun taxiak kasuko lurralde-eremutik kanpo bidaiarien garraio-zerbitzuak egiten dituztela (arestian aipaturako bidaiari-bilketa eta -garraioak eginez Nafarroako Foru Komunitatearen barruan)?

2. Zenbat aldiz jakinarazi zaio Garraioen Zuzendaritza Nagusiari zerbitzu hori egin dela Tafallara eta Tafallatik eramateko erabiltzaileak, emandako taxi-lizentziaren lurralde-eremuaren arabera legozkiekeen herriez bestelakoetatik erabiltzaileak hartuta?

3. Garraioen Zuzendaritza Nagusiak neurririk hartu al du gertakariak ikertzeko eta, kasua bada, zehapen-espeditentea abiarazteko Taxiari buruzko uztailaren 6ko 9/2005 Foru Legearen 46. artikuluan ezarritakoa ez betetzeagatik hiriarteko zerbitzuak abiatzeari dagokionez?

4. Foruzaingoan ba al da salaketarik gertakari horiek direla-eta? Zenbat?

Iruñean, 2026ko otsailaren 17an

Foru-parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

11-26/PES-00058. Galdera, 2025-2028ko aldirako Enplegu Planaren baitako berdintasun-planak betetzeari buruzkoa

ITXASO SOTO DÍAZ DE CERIO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko otsailaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak egindako galdera, 2025-2028ko aldirako Enplegu Planaren baitako berdintasun-planak betetzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2026ko otsailaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioari atxikitako foru-parlamentari Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egiten dio Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta

Enpleguko kontseilari M^a Carmen Maeztu Villafranca andreari, idatziz erantzun diezaion:

2025-2028ko aldirako Nafarroako Enplegu Planean honako helburu hau ezartzen da:

I.H.1. Nafarroan berdintasun-planen betetze-maila hobetzen dela lortzea eta eta enpresa derri-gortuen % 100era heltzea (eta, horien barruan, ahal den gehienetan akordioa bidez).

Hori dela-eta honako hau galdetzen dugu:

– Berdintasun-plana ezarrita daukaten enpresen portzentajea.

– Berdintasun-plana ezarrita daukatela erregistratu ez duten enpresen portzentajea.

– Plan horiek betetzen direla ziurtatze aldera ikuskaritzak egiten dituen kontrol-neurriak.

– Berdintasunaren arloan 2023tik gaur arte egindako ikuskapenak.

– Zehapenik ezarri al zaio enpresaren bati berariazko araudia (901/2020 Errege Dekretua) ez betetzeagatik?

Iruñean, 2026ko otsailaren 17an

Foru-parlamentaria: Itxaso Soto Díaz de Cerio

11-26/PES-00059. Galdera, Parquenasaren kontratuak direla-eta esku-hartu ez izanari buruzko espedientea ez argitaratzeko arrazoiei buruzkoa

JUAN LUIS SÁNCHEZ DE MUNIÁIN LACASIA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko otsailaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak egindako galdera, Parquenasaren kontratuak direla-eta esku-hartu ez izanari buruzko espedientea ez argitaratzeko arrazoiei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2026ko otsailaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Ogasun Departamentuak (esku-hartzearen ardura harena zen) ez zuen argitaratu Parquenasaren 2023ko eta 2024ko kontratuak direla-eta esku

hartu ez izanari buruzko espedientea, 2025eko urriari zertu zena, nahiz eta legez hori argitaratu behar baitzuen Ogasun Publikoari buruzko 13/2007 Foru Legearen eta Gardentasunari eta gobernu onari buruzko 5/2017 Foru Legearen arabera. Zergatik ez zuen espedientea argitaratu?

Iruñean, 2026ko otsailaren 18an

Foru-parlamentaria: Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia

11-26/PES-00060. Galdera, Nafarroan 1/2024 Legea garatzeari buruzkoa

MIREN ITXASO SOTO DÍAZ DE CERIO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko otsailaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miren Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak egindako galdera, Nafarroan 1/2024 Legea garatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2026ko otsailaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioari atxikitako foru-parlamentari Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egiten dio Hezkuntzako kontseilari Carlos Gimeno Gurpegui jaunari, idatziz erantzun diezaion:

Nafarroan, 1/2024 Legearen garapena Hezkuntza, Lanbide Heziketa eta Kirol Ministerioaren arau-garapenaren mende dago.

Hori horrela, zertan da Nafarroan lege horren garapena eta zer aurrerabide egin da gure erkidegoan 1/2024 Legea zeharo garatzeko?

Iruñean, 2026ko otsailaren 18an

Foru-parlamentaria: Itxaso Soto Díaz de Cerio

11-26/PES-00061. Galdera, txerri-izurri afrikarra dela-eta hartutako neurriak areagotzeari buruzkoa

FÉLIX ZAPATERO SORIA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko otsailaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Félix Zapatero Soria jaunak egindako galdera, txerri-izurri afrikarra dela-eta hartutako neurriak areagotzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2026ko otsailaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Félix Zapatero Soria jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Batzordeak erabaki bat onetsi zuen 2026ko urtarrilaren 20an, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatu baitzuen premiaz onetsi zezan txerri-izurri afrikarra prebenitzeko foru-plana eta biosegurtasun-neurriak berehala indartu zitzaizkien.

Harrezkero, egoera epidemiologikoak okerrera egin du nabarmen. 2026ko otsailean, Katalunian 160 kasu baino gehiago egiaztatu dira basafau-

nan, eta arrisku handiko eremua handitu behar izan du, hasierako "zero eremutik" kanpo positiboak agertu direlako. Mehatxu hori ikusita, Aragoiko Autonomia Erkidegoak erabaki bat onetsi du orain dela gutxi (2026ko otsailean), basurdearen ehizatasoia martxoaren amaiera arte luzatzeko, populazio-dentsitatea murriztu dadin eta birusa sartzeko arriskua arindu dadin.

Aragoiko eta Nafarroako basafaunaren mugikortasuna eta hurbiltasun geografikoa kontuan hartuta, honako galdera hauek egin nahi ditut:

1. Hasi al da txerri-izurri afrikarra prebenitzeko eta horri aurre egiteko foru-plana taxutzeko lana? Izan ere, legebiltzar honek plana premiaz onetsi zedin premiatu zuen.

2. Mozioa 2026ko urtarrilean onetsi zenetik, biosegurtasuna indartzeko zer neurri zehatz ezarri da Nafarroako txerri-ustiatzearen?

3. Katalunian txerri-izurri afrikarraren kasuak ugaltzen ari direnez eta Aragoi 2026ko martxoaren 29ra arte luzatu duenez basurdearen ehizatasoia, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak ba al du gisa horretako erabakirik hartzeko asmorik, Nafarroan populazioa areago kontrolatzeko?

4. Basafaunaren koordinazio tekniko eta zaintza egiteko zer mekanismo baliatzen ari zarete Aragoiko erkidegoarekin, txerri-izurri afrikarraren kontrako aparteko neurriak onetsi zituenetik?

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 18an

Foru-parlamentaria: Félix Zapatero Soria

11-26/PES-00062. Galdera, 2024ko kirol-urtekariari buruzkoa*FRANCISCO JAVIER TRIGO OUBIÑA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko otsailaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Francisco Javier Trigo Oubiña jaunak egindako galdera, 2024ko kirol-urtekariari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2026ko otsailaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikita dagoen Javier Trigo Oubiña jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

2024ko kirol-urtekaria prestatzeko asmorik ba al du Nafarroako Gobernuak?

Hala baldin bada, noiz argitaratuko da Nafarroako Kirolaren eta Jarduera Fisikoaren Institutua-ren webgunean?

Iruñean, 2026ko otsailaren 18an

Foru-parlamentaria: Javier Trigo Oubiña

